BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1061

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 18koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Bizkaiko lurralde-ordezkariarena. Honen bitartez, zerrendan ageri diren finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia egiten da, guztiak ere Ajangiz, Arratzu. Arrieta, Busturia, Forua, Gernika-Lumo, Murueta eta Sukarrieta udalerrietatik doan 13,2 kV-ko Erdi Tentsioko Aireko Linea horren zuhaitz-zerrenda handitzeko proiektuak eraginpean harturikoak, titularra Iberdrola Distribución Eléctrica SA delarik.

Erref.: L-7077 –AS-AIA.

Esp.: AT-H-2008-077.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia eta Meategien zuzendariaren 2009ko ekainaren 23ko Ebazpenak aipatutako instalazio elektrikoa onuragarria dela aitortu zuen.

Arlo elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluak xedatutakoaren arabera, onuragarria dela aitortuz gero, ezinbestekoa izango da eragindako ondasunak okupatzea edo eragindako eskubideak eskuratzea. Horrez gain, aitorpen horrek premiazko okupazioa ere badakar, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Horregatik, eta 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluak (1954-12-17ko BOE) xedatutakoa betetzeko, Lurralde Zuzendaritzak ebatzi du dei egitea eragindako eskubide eta ondasunen jabe eta titularrei Busturia udalera etor daitezen bilera batera; izan ere, udal horretan daude eragindako ondasunak. Bilera horretan eragindako ondasunak okupatu aurreko aktak egingo dira eta, hala balegokio, behin betiko okupazioa.

Bestalde, bilerara agertu beharko dira interesdunak eta eragindako ondasunen gainean edozein eskubide edo interesen tituludunak edo, bestela, haien ordezkariak joan ahal izango dira. Ordezkariak joanez gero, behar bezala baimendutako ordezkariak izan beharko dira. Bilerara titulartasuna egiaztatzeko agiriak eta kontribuzioaren azkeneko ordainagiria eraman beharko dira. Gainera, aditu edo notario batekin ere joan ahal izango dira, nahi izanez gero.

Okupatu aurreko aktak honekin batera doan zerrendan jarritako egun eta tokietan egingo dira. Horren berri emateko, zitazio-zedula bana bidaliko zaio titular bakoitzari, eta bertan adieraziko zaio bileraren tokia, eguna eta ordua. Horrez gain, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutako gainontzeko iragarkiak ere egingo dira.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen erregelamenduko 56.2 artikuluak xedatutakoaren arabera, argitaratutako zerrendan agertu ez diren interesatuek edo eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek aukera dute idatziz edozein alegazio aurkezteko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Ordezkaritza honetan Bilboko Concha Jenerala kaleko 23 zenbakiko 5. Solairuan, Alegazioak aurkezteko epea aurreko aktak egiteko egunean amaituko da, eta alegazioen helburua da eragindako eskubide eta ondasunen zerrendan egindako akatsak zuzentzea.

Aditzera ematen da, halaber, iragarki honek jakinarazpenaren balioa izango duela identifikatu ezin izan diren interesdunentzat, ukitutako ondare eta eskubideen titular ezezagunentzat eta

helbide ezezaguna dutenentzat, hala ezartzen baitu azaroaren 30eko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak– 59.4 artikuluan, eta hala agintzen baita Jabetza Nahitaez kentzeko Legearen 52. artikuluko bigarren arauan.

Bilbao, 2012ko urtarrilaren 18a.

Lurralde-ordezkaria,
AINTZANE IZAGUIRRE ETXEBERRIA.

ERANSKINA

Aipatzen den zerrenda

Ref: L-7077 - AT-H-2008-077 As-Aia

Katastroko datuak			Titularra eta helbidea	Hilea	Eguna	Ordua	Udaletxea
Lursailaren zenbakia planoaren arabera	Poligonoa	Lursaila					
4	6	144	Aizpuru Ugalde, Antonio	Martxoa	26	9:15	Busturia
14	13	20	Boyar Muniategui, Pedro Arrate Leztiur, Amalia Luisa Boyar Arrate, Markel	Martxoa	26	9:45	Busturia
20 21	13 12	41 129	Izaguirre Landa, Eufemia	Martxoa	26	10:15	Busturia
22	12	35	Apraiz Alvarez, Juan Jose	Martxoa	26	11:15	Busturia
34	9	238	Esquibel Gandiaga, Jesús	Martxoa	26	11:45	Busturia
38	12	87	Elguezabal Basterrechea, M.ª Carmen	Martxoa	26	12:15	Busturia